

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	04 - EKONOMIA SUSTAPENeko, LANDA INGURUNEko ETA LURRALDE OREKAKO
Atala:	0420 - Berrikuntza Zuzendaritza Nagusia
Programa:	220 - Gipuzkoa 4.0: Fabrikazio aurreratua
Funtzionala:	422 - Industria

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Enpresen lehiakortasuna indartzea, gure enpresen eraldaketa enpresa eredu lehiakor eta aurreratu batera bideratu dadin, 4.0 industria ereduari jarraituko diona, horrela susperraldi ekonomikoa sendotzeko.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoa Lurralde industrial da, industriak oso pisu nabarmena baitu gure ekonomian, 2013an BEGaren %28ko ekarpena eginez, EB 15eko (%19) eta Alemania (%26) batez bestekoaren aurretik, jarduera honen finkatzearen eta zentralitate historikoaren emaitza. Hala era, pisua eta ekoizpen mailak atzera egin du azken hamarkadan, eta beharrezko ikusten da lehiakortasuna indartzea, berrikuntza teknologikoen eta ez teknologikoen estrategiaren bidez, dibertsifikazioa, internazionalizazioa, eta abar. Enpresa eta enplegu gehiago eta hobeak sortzera bideratutako proiektua sortu nahi dugu, ekonomia produktiboaren aldeko apustua eginez, bereziki gure sektore estrategikoetan (automozioa, makina-erreminta, garraio tresnak, energia, turismoa, eta abar); gure enpresei lehiakortasunerako eraldaketan lagundu, produktuetan, merkatuan, teknologian, ezagutzan eta pertsonetan; enplegu eta proiektu berriak sortu, hazi eta egonkortzeko baldintzak bermatuz, bereziki belaunaldi berrien artean; gure zerga-sistema berriz diseinatu aberastasun jasagarria eta errentaren banaketa orekatua indartuko duten enpresa jarrerak eta jarrera sozialak sustatuz; eta gure espezializazio eremuan nazioarteko erreferentzia den lurralde gisa Gipuzkoa nazioartean kokatuko duten proiektu traktoreak bultzatuz.

Beharraren deskribapen xehatua:

Industria aurreratua: Giltzarria da duen pisuarengatik, tira egiteko ahalmenarengatik, aberastasuna eta enplegua sortzeko motor nagusia izateagatik (enplegu industrial bakoitzak beste 2-5 enplegu berri sortzen ditu ekonomiako beste segmentu batzuetan), eta nazioartekotzeak eta I+G+Bk egiten duten palanka efektuarengatik. Industria horren eboluzioari sostengua eman nahi diogu, fabrikazioa aurreratuagoa, efizienteagoa, sostengagarriagoa izan dadin, teknologia eta material berriak erants ditzan, berrikuntza erants dezan diseinuan, merkaturatzean, negozio ereduaren edo kudeaketa sistemetan. Gure herrian industriaren aldeko gizarte mugimendua lortu behar dugu, enpresa jarri behar dugu aberastasuna sortzeko prozesuaren erdigunean. Balioa aitortu behar diogu egiten duen ekarpen sozial eta ekonomikoari, apustua egin behar dugu ahalik eta enpresa gehienek parte har dezaten, errenta banaketa egokia, proiektu partekatua eta jasagarrien konfigurazioa, ardura pertsona guztien artean banatzea eta ingurunearekin konpromisoa hartzea lehiakortasunaren ezaugarri izan daitezen.

Nori zuzendua:

Enpresak (enpresa handiak, enpresa txikiak, ETEak, irabazi asmorik gabeko erakundeak,...) eta herritarrak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileak. Baliabide ekonomikoak. Laguntza teknikoak

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Inbertsioa pizteko programak, teknologia eta produktuen garapena fabrikazio aurreratuko merkatuan sartzeko, baita demostrazio teknologiko eta diagnostikorako proiektuen garapena ere, Industria4.0 kontzeptua ETEetara hurbiltzeko. Landu nahi diren ildoak hauek dira:

- Fabrikazio aurreratuko, show-rooms eta lantegi pilotuen teknologien erakustaldirako eta balidaziorako azpiegitura bereziak.
- Produktuen garapenari zuzendutako I+G proiektuak, fabrikazio aurreratuko merkaturako. Produktu berri bat edo dagoen baten hobekuntza nabarmena izan behar du ondorio.

- c. 4.0 teknologiak ezartzea enpresaren lehiakortasuna hobetzeko.
- d. I+G+b jarduerak garapena bukatzeko (diseinu industrial, produktuaren ingeniari, prototipoen balidazioa eta berriz diseinatzea...), ekoiztu (industrializazio azterketa, ekoizpen bide berriak garatu, material berriak aztertu, moldeak eta erremintak) eta produktu berri bat merkaturatu (patentagarritasuna, balidazioa eta homologazioa, jabetza industrial eta patentea).
- e. Fabrikazio aurreratuko zentroak.
- f. Gipuzkoako enpresarentzat talentua sortzea eta horri eustea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

I+G proiektuen garapena produktu berriak sortzeko.
Teknologia aurreratuen ezarpena enpresen lehiakortasunarekin talka egin dezaten.
Garapen teknologiko berrien merkaturatzea azkartu.
Hobeto formatutako pertsonak. Kalitatezko enplegua.

Programaren arau esparrua:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak jasotzen dituen araudia. Berrikuntza Digitalean aplikatu daitezkeen sektorekako araudia. I+G zentroei aplikatu daitezkeen araudia.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Ekonomiaren erreberazioa finkatzea

Proiektu estrategikoa: Ekonomia suspertzeko plana

Urteko helburua: Gipuzkoako enpresen eraldaketa lehiakorra bultzatzea, fabrikazio aurreratuko teknologiak eta 4.0 Industria eredu bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Teknologia maila ertaina eta ertain/altua duten enpresen presentzia areagotu.	Ehunekoak	>=	0,00	18,80	19,20	20,00
Lagundutako enpresen kopurua	Kopurua	>=	60,00	70,00	70,00	70,00
Teknologi eduki handia eta ertain-handia duten salmenten portzentaia	Ehunekoak	=	37,26	37,50	37,60	37,60

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoa 4.0 Industria. Fabrikazio aurreratua eta Industria 4.0 eredu bultzatzea enpresen artean, haien lehiakortasuna hobetze aldera, eta I+G+i-ko jarduerak laguntzea enpresetan, produktu berriak garatzeko.

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	3.459.838,00	880.000,00		2019/01/01	2020/12/31	
1.1 Ekintza Industria 4.0 eredu bultzatzeko jarduerak	1.665.370,75	800.000,00		2019/01/01	2020/12/31	
1.2 Ekintza Gipuzkoako industriaren bultzada lehiakorra	313.370,75	80.000,00		2019/01/01	2020/12/31	
1.3 Ekintza Sektore estrategikoei bultzada: Elektromugikortasuna	515.370,75			2019/01/01	2020/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.4 Ekintza Sektore estrategikoei bultzada: Gastronomia	965.725,75			2019/01/01	2020/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Enpresaren barruan emakumearen papera balioztatzea

Kuantifikazioa: 69.196,76 (% 2,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Or 1. Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu.	(% 100,00)	Or 1.1. Departamentuko politika, plangintza, programa eta jarduera guztien planifikazioa, implementazioa eta ebaluazioa genero ikuspegitik egitea.	Sexuaren aldagaia eta lortutako emaitzen genero azterketa txertatzen dituzten azterketa eta ikerketen ehunekoa (egindako azterketa eta ikerketa guztiekiko). Berariazko trebakuntza jaso duen berdintasunerako koordinazio foru egituretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (egitura horietan parte hartzen duten pertsona guztiekiko). Berdintasunerako klausulak jasotzen dituzten kontratu eta diru-laguntzen ehunekoa (egindako kontratu eta diru-laguntza guztiekiko).

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Diru laguntza eskatzaileekin lehenetsi harremana euskaraz izatea

Kuantifikazioa: 69.196,76 (% 2,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 100,00)	Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2018	2019	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros (%)				
			2020	2021	2022	2023 eta hurrengoak/ 2023 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	206.605,00	211.483,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	398.889,00	250.000,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.210.000,00	1.260.500,00	330.000,00				330.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.815.494,00	1.721.983,00	330.000,00				330.000,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.300.000,00	1.737.855,00	550.000,00				550.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	1.300.000,00	1.737.855,00	550.000,00				550.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	3.115.494,00	3.459.838,00	880.000,00				880.000,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	211.483,00				211.483,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	250.000,00				250.000,00	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.260.500,00		330.000,00		1.590.500,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.721.983,00		330.000,00		2.051.983,00	
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.737.855,00		550.000,00		2.287.855,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	1.737.855,00		550.000,00		2.287.855,00	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	3.459.838,00		880.000,00		4.339.838,00	

Sarrerren kapituluak / Capítulos de ingresos	2019	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENKO ZERGAK/IMPUESTOS DIRECTOS		
2. ZEHARKAKO ZERGAK/IMPUESTOS INDIRECTOS		
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/TASAS Y OTROS INGRESOS		
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/TRANSFERENCIAS CORRIENTES		
5. ONDARE SARRERAK/INGRESOS PATRIMONIALES		
Eragiketa arruntak, guztira / Total operaciones corrientes		
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ENAJENACION DE INVERSIONES REALES		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		
Kapitaleko eragiketak, guztira / Total operaciones de capital		
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ACTIVOS FINANCIEROS		
9. PASIBO FINANTZARIOAK/PASIVOS FINANCIEROS		
Finantza eragiketak, guztira / Total operaciones financieras		
Guztira / Total		